DebaBarrena
Denona da, izan garbi

INGURUMEN HEZKUNTZAKO KANPAINAK BURUTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

KONTRATUAREN IRAUPENA	2 urte
LUZAPENA	Urte bat
LIZITAZIOAREN AURREKONTUA	50.000 €
KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA	61.983 €
SORTAKAKO BANAKETA	Bai
PROZEDURA	Ireki sinplifikatua
ONARPEN ORGANOA	Mankomunitateko Gobernu Batzordea

1.- Sarrera

Debabarrenako Mankomunitateak 2030erako % 70eko gaikako bilketa lortzea du bere helburu estrategikoen artean. Helburua betetzeak, ingurumen arloan zalantzarik gabeko hobekuntzak izateaz gain, diru aurrezpen nabarmena ekarriko du kudeatzen diren hondakinen tratamenduan.

Aipatu helburua lortzeko, ezinbestekoa da herritarrak kontzientziatzea. Pertsona guztiok, arlo guztietan eta urteko egun guztietan sortzen ditugu hondakinak. Sortzen diren hondakinen kopurua ahalik eta txikiena izatea eta hondakinak behar bezala sailkatzea –birziklatzea ahalbidetzeko– lehentasuna da gure erakundearentzat.

Oinarrizko lana –herritarrak oro har kontzientziatzea– biohondakinak biltzeko edukiontzi marroia erabiltzen hasi zenean eta errefusa biltzeko edukiontzi grisa ixtea erabaki zenean egin ziren kanpainen bidez egin da. Oinarrizko lan hori egin ondoren, hemendik aurrera, kanpaina zehatzagoak egin behar dira, "nitxoak", adibidez, hondakin sortzaile handiak edo gastronomia elkarteak, ondo identifikatu eta gero. Era berean, jarraitu behar da Mankomunitateak eskaintzen dituen arren birziklatzeko ahal osoa garatzen ez duten zerbitzuei buruzko informazioa ematen (hala nola garbiguneak eta tamaina handiko hondakinak kalean biltzeko zerbitzua).

Kontratu honen helburua ingurumen hezkuntzan diharduen enpresa bat kontratatzea da, Mankomunitateko ingurumen zerbitzuek datozen urteetan egin nahi dituzten hainbat kanpaina burutu ahal izateko.

2.- Kontratuaren xedea

Mankomunitateko ingurumen zerbitzuek pentsatu dituzten kanpainak gauzatzea da kontratuaren xedea.

Enpresa adjudikazioduna nahitaezko ezaugarri teknikoei buruzko 6. puntuan zehaztutako kanpainak diseinatzeaz, bisitak egiteaz eta ondorioak jasotzeaz arduratuko litzateke.

3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia

Gainditu ezin den lizitazio aurrekontua (2 urtetarakoa), lana egiteko, **50.000,00 euro** izango da, BEZa barne.

Kontratuaren balio zenbatetsia (3 urtetarakoa) **61,983 euro** da, BEZik gabe.

Zenbateko horrek barnean hartzen ditu lehiaketaren xedea burutzeko egin behar diren lan guztiak, baita garraioa, dietak eta abarrak ere.

4.- Kontratuaren iraupena

Kontratu honek 2 urteko iraupena izango du, eta beste urte batez luzatu ahal izango da.

5.- Egikaritze epeak

Kanpaina bakoitzak bere egikaritze epea du:

1.- Azalera handiei zuzenduriko kanpaina: 2021eko uztailaren 31

2.- Gastronomia elkarteei zuzenduriko kanpaina: 2021eko urriaren 30a

Hondakinak murrizteko kanpaina: 2021eko abenduaren 15a

4.- Establezimendu txikiei zuzenduriko kanpaina: 2022ko martxoaren 31

5.- Jantokia duten enpresei zuzenduriko kanpaina: 2022ko ekainaren 30a

6.- Fruta-dendei zuzenduriko kanpaina: 2023ko martxoaren 30a

7.- Pintxo tabernei eta jatetxeei zuzenduriko kanpaina: 2023ko ekainaren 30a

8.- Hondakinak murrizteko kanpaina: 2023ko abenduaren 15a

6.- Bete beharreko ezaugarri teknikoak

Honako kanpaina hauek izango lirateke, adierazitako urtean –gutxi gorabehera– egiteko:

1.- Azalera handiei zuzenduriko kanpaina (2021): hasteko, kanpaina honetan, Debabarrenako supermerkatu (400 eta 2.500 metro karratu bitarteko establezimenduak) eta hipermerkatu (2.500 metro karratu baino gehiagoko establezimenduak) guztien zerrenda egingo litzateke. Eskualdean, gaur egun, ezaugarri horiek 50 establezimenduk dituztela uste da.

Zerrenda egin ondoren, lehenengo aldiz bisitatuko dira establezimendu guztiak, dendaren arduradunarekin hitz egiteko eta, horrela, bisita egiten den unean bertan hondakinak nola bereizten diren jakiteko. Lehenengo bisitaldi horretan oraingo bilketa sistema ezartzea proposatuko da, hau da, 5 frakzio nagusiak (organikoak, ontziak, kartoia, beira eta errefusa) eta "Sandach" izenekoak biltzea. Bigarren bisitan, establezimenduak bere hondakinak egoki bereizteko beharrezko aldaketak egin dituen egiaztatuko da, eta hurrengo bisitan behar bezala jokatzen duela ikusten bada, “hondakinak birziklatzen dituen establezimendua” bereizgarria emango zaiola jakinaraziko zaio. Hirugarren bisitan, hondakinak behar bezala bereizten diren egiaztatuko da, eta, hala bada, bereizgarria emango da.

Kanpaina amaitu ondoren, bisitatutako establezimenduak, harremanetarako pertsonak eta bisiten ondorioak jasotzen dituen txostena aurkeztuko da.

2.- Gastronomia elkarteei zuzenduriko kanpaina (2021). Hasteko, pandemiaren ostean eskualdean jarduerari eusten dioten elkarte gastronomikoen zerrenda bat sortuko da. Gaur egun, ustez, 120 elkarte dira, eskualdeko 8 udalerrietan sakabanaturik. Udalen laguntzaz zerrenda egin ondoren, elkarte guztiekin harremanetan jarriko da telefono bidez, hitzordua

zehazteko, bertan birziklatzearen garrantzia azaldu ahal izateko, eta Mankomunitateak dauzkan baliabide materialak (zakarrontziak, poltsak eta abar) eskaintzeko. Hitzorduaren ostean, telefonoz hitz egingo da, proposatutako hobekuntzak ezartze aldera.

Kanpaina bukatu ondoren, bisitatutako elkarteak, harremanetarako pertsonak eta bisiten ondorioak jasotzen dituen txostena aurkeztuko da.

3.- Hondakinak murrizteko kanpaina (2021)

Sortzen diren hondakinen kantitatea murrizteko eta azken urteotako goranzko joera aldatzeko, urtero, Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearekin batera, ingurumenaren inguruko sentsibilizazio kanpaina bat egingo da. Kanpainen helburua gero eta hondakin gutxiago sortzea izango da.

Kanpaina horretan, 10 egunez, egunean 8 orduz, sortzen ditugun hondakinen kantitateari eta kantitate hori murrizteko garrantziari buruzko informazioa emango da Mankomunitateko edukiontzi gune desberdinetan.

4.- Establezimendu txikiei zuzenduriko kanpaina (2022)

Azalera handikoei zuzenduriko kanpaina bezalakoa izango da, baina kasu honetan gainerako janari dendei zuzenduta egongo da. Eskualdean horrelako dendak 100 dira gutxi gorabehera.

Kanpaina amaitu ondoren, bisitatutako establezimenduak, harremanetarako pertsonak eta bisiten ondorioak jasotzen dituen txostena aurkeztuko da.

5.- Jantokia duten enpresei zuzenduriko kanpaina (2022)

Hasteko, sukalde eta jantoki propioak dituzten enpresen zerrenda bat sortuko da. Horrelakoetan, janaria bertan prestatzen da edo catering bidez

osatzen da, eta hondakin organikoen kantitate handia sortzen da. Eskualdean, gutxi gorabehera 75 enpresak izan ditzakete sukalde eta jantoki propioak.

Zerrenda egin ondoren, enpresak bisitatuko dira, beren beharrak ezagutzeko, eta Mankomunitateak dituen baliabide materialak (zakarrontziak eta poltsak) eta zerbitzuak eskaintzeko. Baliabideak instalatutakoan, bigarren bisita egingo da, enpresetan hondakinen gaikako bilketa behar bezala egiten dela egiaztatzeko.

Kanpaina amaitu ondoren, bisitatutako enpresak, harremanetarako pertsonak eta bisiten ondorioak jasotzen dituen txostena aurkeztuko da.

6.- Fruta-dendei zuzenduriko kanpaina (2023)

Kanpaina hau 2020an eskualdeko 69 fruta-dendetan egin zen kanpainaren jarraipena egiteko antolatuko da. Bisita bakarra izango da, hondakin organikoak behar bezala biltzen diren egiaztatzeko, eta zakarrontziak eta poltsak bezalako materialak behar diren galdetzeko. Material horiek Mankomunitateko langileek entregatuko dituzte.

7.- Pintxo tabernei eta jatetxeei zuzenduriko kanpaina (2023)

Kanpaina hau 2020an eskualdeko 169 pintxo taberna eta jatetxeetan egin zen kanpainaren jarraipena egiteko antolatuko da. Bisita bakarra izango da, hondakin organikoak behar bezala biltzen diren egiaztatzeko, eta zakarrontziak eta poltsak bezalako materialak behar diren galdetzeko. Material horiek Mankomunitateko langileek entregatuko dituzte.

8.- Hondakinak murrizteko kanpaina (2023)

Sortzen diren hondakinen kantitatea murrizteko eta azken urteotako goranzko joera aldatzeko, ingurumenaren inguruko sentsibilizazio kanpaina bat

egingo da urtero. Kanpainen helburua gero eta hondakin gutxiago sortzea izango da.

Kanpaina horretan, 10 egunez, egunean 8 orduz, sortzen ditugun hondakinen kantitateari eta kantitate hori murrizteko garrantziari buruzko informazioa emango da Mankomunitateko edukiontzi gune desberdinetan.

Bisita guztiak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.

Bisitaldietan beste kontratu batean egindako komunikazio-materiala erabiliko da.

7.- Eskaintzak bete behar dituen gutxieneko baldintzak

Nahitaezko baldintza da lizitazioaren xede diren zerbitzuak ematera bideratuko diren giza baliabideak eta baliabide materialak, prestakuntza eta beste ezaugarri garrantzitsu batzuk zehaztea. Enpresa lizitatzaileko teknikari batek (gutxienez) Mankomunitateko zerbitzu teknikoei laguntzeko prest egon beharko du asteko 10 ordutan, kontratua indarrean egon bitartean, telefonoz edo posta elektronikoz bisitak zehaztu, zalantzak argitu eta hobekuntzak ezartzeko.

Egin beharreko lanetan emango diren orduen justifikazioa aurkeztu beharko da. Langile horiek geroago ordeztu behar badira, Administrazioak ordezkapena onartu beharko du, izendatutako teknikari berrien “curriculum vitae” aurkeztu ondoren.

Nahitaezko baldintza da kaudimena egiaztatzea; horretarako, ziurtagirien bidez egiaztatuko da ingurumen hezkuntzako kanpainak diseinatzen eta gauzatzen lortutako gutxieneko esperientzia, hain zuzen, gutxienez 2 azken hiru ekitaldietan.

Nahitaezko baldintza da ahalik eta ingurumen inpaktu txikiena egitea, lizitazioaren xede diren zerbitzuak ematen diren bitartean. Horretarako, saihestuko dira paperezko dokumentuak eta, txostenak aurkezteko, metodo

telematikoak erabiliko dira. Ahal den heinean, autoz egiten diren joan-etorriak saihestuko dira, eta koordinazio bilerak linean egingo dira.

Baldintza horiek betetzen ez dituen eskaintza baztertu egingo da hautaketa-prozesutik.

8.- Egikaritzeko baldintza bereziak

Enpresa adjudikaziodunak honako baldintza berezi hauek beteko ditu, gizarte eta ingurumenari dagokienez.

1.- Gizarte arloko baldintzak:

Enpresa adjudikaziodunak bete beharko du 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta EAEn indarrean dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana garatzen duena.

2.- Ingurumen arloko baldintzak:

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du lan egin bitartean berotegi-gasen isuriak murrizteko; horretarako, saihestuko ditu joan-etorriak, beharrezkoak ez badira, eta ezinbesteko bidaietarako erregai alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuak baliatuko ditu.

Enpresa adjudikazioduna ahalik eta hondakin gutxien sortzen saiatuko da, berrerabil daitezkeen materialak berrerabiliko ditu, eta gaika bereiziko ditu lana egin bitartean sortzen diren hondakin guztiak.

9.- Adjudikazio irizpideak

Kontzeptu horiek direla eta, gehienez ere 75 puntu emango dira.

Eskaintza ekonomikoa, eskainitako zerbitzuaren prezioa.

Kontzeptu hau dela eta, gehienez ere 75 puntu emango dira.

Prezioaren araberako proposamen ekonomikoak honako puntuazio sistema honen arabera ebaluatuko dira:

Proposamen ekonomikoa zerbitzua egiteagatik ordaindu behar den prezioa da, BEZa barne.

Eskaintza ekonomikoei dagozkien puntuazioak, alegia, onartutako proposamenei dagozkienak, interpolazio linealaren bidez kalkulatuko dira, bi puntuek mugaturiko zuzenaren arabera: gehieneko puntuazioa edo P2 (Gehieneko beherapena, gehieneko puntuazioa jasotzen duena: 75 puntu) eta P1 edo gutxieneko puntuazioa.

Puntuak esleitzeko, honela jokatuko da:

P2 – Proposamen ekonomiko baxuenari dagokion puntua (Gehieneko beherapena, abzisen ardatzean); horri gehieneko puntuazioa esleituko zaio ordenatuen ardatzean (75 puntu).

P1 – Puntu hau, abzisen ardatzean, gehieneko lizitazio prezioa (BEZa barne) adierazten duen eskaintzarekin bat datorren beherapenari dagokio. Ordenatuen ardatzeko balioa, eskaintza horri dagozkion puntuetan, honako formula hau aplikatuz kalkulatzen da:

P1 = 75 x (1 – (3 x Bmax))

(Bmax = Gehieneko beherapena)

P1 kalkulatuz lortutako emaitza negatiboa bada, zero dela joko da.

Beherapena (Bi) lizitazio prezioaren eta "i" proposamen ekonomikoaren arteko diferentzia da (BEZa barne), zati lizitazio prezioa; "i" horrek 1etik n-ra bitarteko balioak hartzen ditu, non "n" onartutako lizitazioen kopurua den.

Aurrerago aipatutako zuzena lortzeko, lehiaketan onartutako eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituzten eskaintza ekonomikoak:

Izan ere, "i" proposamen ekonomiko bat baxuegia dela eta, ondorioz, proposamen ekonomiko anormala edo neurriz kanpokoa dela esango da, eskaintza horri dagokion "i" beherapenak (Bi) lehiaketan onartutako eskaintza guztien batez besteko beherapena 10 puntu portzentualetan gainditzen duenean, non "i" horrek 1etik "n"-ra arteko balioak hartzen dituen, eta "n" baloratzeko onartu diren eskaintzen kopurua den.

Eskaintza batean edo batzuetan hasiera batean neurriz kanpoko beherapena antzematen bada, baina aztertu ondoren eskainitako prezioak proiektua burutzeko egokiak direla ulertzen bada, neurriz kanpoko beherapena dagoela pentsarazi duen desbideraketa behar bezala justifikatzen baita, proposamen horiek baliagarritzat joko dira eta onartuko dira, eta azken eskaintza ekonomikoenari (gehieneko beherapen berria) dagokiona birkalkulatuko da P1 puntu gisa; gehieneko puntuazioa emango zaio, hau da, 75 puntu."

BALIO JUDIZIOEN BIDEZ EBALUATU BEHARREKO IRIZPIDEAK.

Atxikitako giza baliabideak

Kontzeptu horiek direla eta, gehienez ere 25 puntu emango dira, eta balio judizioen bidez ebaluatuko dira.

7. puntuan eskatzen diren nahitaezko balditzez gain, honako hauek baloratuko dira:

Lantaldearen diziplina aniztasuna. Enpresa lizitatzaileek aurkeztuko dituzten curriculumak aztertuz baloratuko da.

Enpresa lizitatzailearen eta proposatutako langileen esperientzia kontratuaren xede denaren antzeko lanetan, kaudimen gisa eskatzen den gutxienekoa baino handiagoa.

Lantaldeko kideen arduraldia, hau da, lan horiek egiten emango dituzten orduen kopurua, 7. puntuan eskatzen den gutxienekoa gainditzen duena.

Proposamenek, dagokien Txosten Teknikoan, zehaztu beharko dituzte kontratua gauzatzeaz arduratuko diren langile teknikoen izen-abizenak eta kualifikazio profesionala, prestakuntza egiaztatzen duen dokumentazioa (titulazioa) eta kontratuaren xede dena bezalako lanetan –ingurumen

hezkuntzako kanpainak, azken hamar (10) urteetan egindakoak edo gauzatzen ari direnak– duten lanbide esperientzia (curriculum xehea) erantsita.

10.- Berdinketa ebazteko irizpideak

Eskaintza biren edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, honela jokatuko da:

- Enpresa bakoitzeko plantillan desgaitasuna duten edo gizarte bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena konparatuko da; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan langile gehien duena.

Berdinketa ebatzi ezean, langileen artean aldi baterako kontratu gutxiago dituen enpresa lehenetsiko da.

Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresaren alde ebatziko da.

Hala ere, ebazten ez bada, zozketaren bidez ebatziko da, baldin eta aurreko irizpideak aplikatzeak berdinketa hautsi ez badu.

11.- Lizitazioaren oinarrizko prezioa kalkulatzeko metodoa

Lizitazio prezioa kalkulatzeko, aintzat hartu da jarraian azaltzen den kostuen banaketa, kostua osatzen duten sail desberdinen garrantzia honako hau izanik: Zuzeneko langileen gastua: % 55; zeharkako langileen kostua: % 4; horniduren kostua: % 10; finantza gastua: % 2; ibilgetuaren amortizazioa: % 10; gastu orokorrak: % 13; mozkin industriala % 6; hau da, gastu orokorrak kostu osoaren % 75 dira, zeharkako gastuak % 6 eta beste gastu batzuk % 19.

Ingurumen hezkuntzako kanpainak egiteko zerbitzuari lotutako kostuen kalkulua

Kostuen banakapena, kontzeptuen arabera	Kontzeptuak kostuetan duen garrantziaren %				Kontzeptuak kostuetan duen garrantzia eurotan (BEZ KANPO)			
	Zuzeneko kostuak	Zeharkako kostuak	Egon daitezkeen beste gastu batzuk		Zuzeneko kostuak	Zeharkako kostuak	Egon daitezkeen beste gastu batzuk	
Langileen gastua – zuzeneko eskulana	0,55				11.363,64	0,00	0	0
Langileen gastua – zeharkako eskulana		0,04			0,00	826,45	0	0
Hornidurak	0,1				2.066,12	0,00	0	0
Gastu finantzarioa		0,02			0,00	413,22	0	0
Ibilgetuaren amortizazioa	0,1				2.066,12	0,00	0	0
Gastu orokorrak			0,13		0,00	0,00	2.685,95	0
Mozkin industriala				0,06	0	0	0	1.239,67
GUZTIRA	0,75	0,06	0,13	0,06	15.495,87	1.239,67	2.685,95	1.239,67
	1				20.661,16			